

## Tik Tak

### Banaketa eta Komunikazio Kanalak

Hasteko, banaketa kanalak eta komunikazio kanalak ezbardinduko doguz.

Alde batetik, banaketa kanaletatik hasiz, aplikazioa Apple Store eta Play Storen erabilgarri egongo litzateke, enpresaren targeta Euskadiko jende gaztea izanik. Apple sistema eragilea IOS dauan mugikorra dauan bezero batek Apple Store erabiliko leuke eta Android sistema eragilea dauanak, ordea, Play Store.

Beste alde batetik, bezeroekin harremanak izan daiguzan eta bezeroek gure zerbitzuen barri izan dagien, hurrengo hainbat komunikazio kanal erabiltzeko asmoa dogu, sare sozialak nagusi izanik:

- Instagram eta TikTok sare sozialak nabarmendu gurako geunkez gazteon artean ohikoenak diralako. Esate baterako, Instagramek ahalbidetutako datuen arabera, 2021. urtean bezeroen %71-k 35 urte baino gutxiago ebazan. Horretarako, kontu bat sortuko da non hainbat irudi igo eta ekintza egingo dira:
  - **Argazki eta Bideoak**  
Hasteko, mota ezbardineko argazkiak eta bideoak igo leitekez. Alde batetik, 24 orduetan ezabatzen diranak eta beste aldetik, zuk gura dozun arte Instagramen dagozanak. Gure kontuan 2 bide horreek erabiliko doguz. Dana dala, 24 orduetan ezabatzen dan bidea nabarmenduko dogu gaur egun argazki edo bideo horreek ikusle gehiago dabezalako. Argazki eta bideoen edukari jagokonez, egin leitekezan plan interesgarriak nabarmenduko doguz, proposamenak eskainiz; eta aplikazioaren erabileraren azalpenak be emongo dira.
  - **Zozketak**  
Aurrerago, behin irabaziak izanda, zozketak egiteari aukera paregabea deritzogu. Zozketan kosturik gabeko hitzarmenak egiteko aukera oparituko da. Ekintza honeen bidez, enpresaren jarraitzaile kopuruaren hazkundera gertatuko da.
- Azkenik, aplikazioan erabiltzaileen eskaerak zein hobekuntzak bidaltzeko atala, postontzia, berrmatzea egokia izango litzateke bezeroak zerbitzuarengan dauan irudia hobetu daiten. Notifikazio postontziak be enpresak bezeroekin komunikazio zuzena izatea berrmatuko deutso. Iradokizun edo eskaera honeek notifikazioak jasotzeko postontzi baten bidez lortuko doguz. Esan beharra dago, iradokizun horreek bakarrik aplikazioaren sortzaileek jasotzeko diseinatuta egongo dala.